

Perigolan

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2016ko otsaila / 14. zenbakia



Begiak itxita, ikastola

OTSAILA - MARTXOA



HAUR HEZKUNTZA KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Konfiantza giroan hazten naiz, eta, horrela, nire baitan ditudan gaitasun guztiak garatzeko aukera dut.





HAUR HEZKUNTZA KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Ni naiz ikasketa prozesuaren protagonista; motibatuta nago edozein gauza egiteko. Espazio irekiak, argitsuak, goxoak eta ekipamendu egokiak ditugu.



EKAINA - UZTAILA



ARTE MARTZIALAK IKASI DITUGU!

ARTE MARTZIANOAK ERE BAI!



BOST MINUTU PASA DIRA ETA ORAINDIK EZ DA EZER ATERA!



A ZE FUNDAMENTUA!

AZKAR JANGO DET, GERO ONDKOARENA JATEKO!

LEHEN HEZKUNTZA IKASKETA KOOPERATIBOA

Ikasten ikasteko, zer hobe taldean lan egitea baino!



ZE HIZKUNTZA DA HORI?

BUELTA EMAN ETA ASMATUKO DUZU!



ORIOKO HANBURGERA...



BIZKARZAINA ETA JOALDUNAK...



ESPERIENTZIA JOSTEN ETA HARREMANAK BRODATZEN...



LEHEN HEZKUNTZA IKASKETA KOOPERATIBOA

Elkarrekin bizitzen, lan egiten eta gatazkak era positiboan kudeatzen ikasten dugu.



URRIA - AZAROA



GU ERRIA TXIKOTA GATTUNK!

UDAZKEN KOLORETAN...



GAZTAINA BAT AURKITU DUT!



NONGOA NAHI HUEN, BA, HARRAPATU?

ORIOKO IGELA HARRAPATU DUGU!



BAINA PILA BAT IKASI DUGU!

PINTURA MERKEA ATERA ZAIGU!

GELA MARGOTZEA IZAN DUTE PROIEKTUA...

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA EKI PROIEKTUA

Bizitzan gertatuko zaizkigun egoera errealei aurre egiteko, konpetentziak gureganatzen ditugu.



ESPERIMENTATZEKO ESPERIENTZIA...



BAINA, ZEIN HASIKO DA?

HEMEN AKATS BAT DAGO!



HAURREK IKASTEN DUTE ETA GURASOEK ERE BAI...



BETAURREKOAK DITU!

BA, ORDUAN EZ NAIZ NI!



ABENDUA - URTARRILA



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA EKI PROIEKTUA

Taldean, elkarrekin, proiektuak aurrera ateratzen ditugu IKT-ak erabiliz, ikas-materiala modu digitalean baitugu.





Ongi etorri gurera!

Hemen dituzue gure etxeko txikiak. Irailean ezagutu genuen elkar. Hasieran gurasoekin etortzen ziren, eta berriketan, konfiantzan egoten ginen. Eurekin egin zuten guganako bidea. Poliki-poliki eskua askatu eta gurea ere heldu dute. Pixkanaka-pixkanaka gure besoak onartu dituzte, euren barreak eta negarrak gurekin partekatzeraino. Esploratzeko bidea ere ari dira egiten, eta pozik ikusten ditugu hainbat txokotan beraien kuriositatea eta jakin-mina asetzen: eraikuntzetan, mahai jokoetan, ipuin txokoan, esperimentazioan edo psikomotrizitateko gunean. Hiru urtekoekin ere ari dira konfiantza hartzen, gustura ikusten ditugu elkarrekin jolasean.

Ongi etorri, Mikel, Arhane, Maddi, Eñaut, Bidane, Aimar, Maria, Amets, Telmo, Enaitz, Ihintza, Malen, Mikel, Adei, Uxue, Leire, Julen, Maddi, Eider, Alain, Haitz, Mara, Naia, Iker, Mikel, Nahya, Maddi, Luken, Irune, Iñaki, Karen, Jare, Erick, Oinatz, Maialen, Adur eta Maren.



kutxa